



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

## DEIALDIA, ARKITEKTO TEKNIKOAREN LANPOSTUAN ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUAREKIN ARIKO DIREN IZANGAIEN ZERRENDA BAT ERATZEKO HAUTAPROBEN BIDEZ.

Deialdia eginen da aplikatu beharreko arauekin eta oinarri hauetan ezartzen denarekin bat etorritz:

### OINARRIAK

#### 1.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Berako Udaleko arkitekto teknikoaren lanpostuan aritzeko izangaien zerrenda bat osatzea hautaprobek bidez. Aldi baterako kontratazioak eginen dira harekin (gehienez ere 3 urteko lan-kontratuak).

1.2. Eginen diren hautaketa probak 6. oinarrian ezarritakoak izanen dira.

1.3. Lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei dagokien B mailako ordainsariak izanen ditu. Era berean, plantilla organikoak aurreikusten dituen soldata osagarriak jasoko ditu.

1.4. Lanaldiaren araubidea udal bulegoetako gainerako langileen urteko lanaldiaren %50ekoa da, eta zerbitzuaren beharretara egokituko da. Udalak edozein unetan aldatu ahal izanen du.

1.5. Bete beharreko eginkizunak mailari eta kategoriari dagozkionak izanen dira. Adibide gisa, eta zerrenda itxiaren izaera izan gabe, honako hauek nabarmentzen dira:

- Bere eskumeneko gaietan agintzen zaizkion txostenak egitea.
- Udal obren eta emandako lizentzien jarraipena eta kontrola egitea.
- Beste teknikari batzuei laguntzea eta haiekin lankidetzan aritzea txostenak, azterlanak, proiektuak eta abar egiten, dagokien eskumen arloan.
- Aholkularitza eta laguntza ematea balorazio teknikoa egin behar den kontratazio mahaiei eta, hala badagokio, Hirigintzako Informazio Batzordeari.
- Udalaren barruko zein kanpoko eskumenekin lotutako bilera, batzorde eta abarretara joatea eta horietan esku hartzea, baldin eta gobernu organo eskudunak uste badu Udala bertan egon behar dela.
- Esleitzen zaizkion aldi baterako beste eginkizun batzuk betetzea, arrazoi justifikatuengatik edo larrialdiengatik edo izaera funtzional eta organikoagatik, Udalaren lan edo interes planetan aurreikusitako balioaniztasun irizpidea aplikatuz.
- Garrantzi txikiko udal proiektu edo obretan segurtasun eta osasun azterlanak egitea eta haien jarraipena egitea.
- Udaleko lan arriskuen prebentzioko koordinatzailea.
- Udalak sustatutako eraikuntza eta urbanizazio obretan segurtasun eta osasun neurriak betetzen direla berrikustea, ikuskatzea eta eskatzea, bai eta elementu higigarriak eta instalazioak mantentzeko eta birjartzeko lanetan ere.



BERA

OINARRIAK - SEFYCU 265614

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

15tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20

– Bere arloko giza baliabideak kudeatzea eta bere ardurapeko langileak eta zerbitzu anitzak (obrak, urak, lorategiak, atezainak, bide garbiketa, argiteria publikoa) koordinatzea, ahaleginak batera egitea eskatzen duten jardueretan.

– Hiri mantentzearen, bideen, urbanizazio elementuen, azpiegituren eta hiri altzarien, argiteria publikoaren, uren, lorategien eta bide garbiketaren plangintza eta jarraipena egitea.

– Hirigintzaren, obren, uren, argiteria publikoaren, lorategien eta, oro har, garbiketa planen arloko txostenak, ikuskapenak, irizpenak, memoria balioetsiak, balorazioak, azterlanak, analisiak eta proposamenak.

– Udal eraikinen, lokalen eta zerbitzuen mantentze lanak, alderdi teknikoak eta eraikuntzakoak, eta segurtasuneko, osasuneko, efizientziako eta energia hobekuntzako, irisgarritasuneko eta egoerako neurriak kontrolatu, programatu eta berrikustea.

– Zerbitzu anitzetako obrak, makineriaren eta materialen erosketak, hornidurak, erosketak oro har eta altzariak kontratatuzko baldintzak egiten laguntzea.

– Zerbitzu anitzen aurrekontua kudeatzea, udal arkitektoarekin lankidetzan; aurrekontu horri eragiten dioten gastuei oniritzia ematea, hornitzaileekin tratatzea, kontratatutako obrak gainbegiratzea eta obrak ziurtatzea.

– Deskribatutakoez gain, ezarritako helburuak lortzeko agintzen zaizkion beste zeregin batzuk egitea, lanpostuak eskatzen dituen gaitasun eta trebetasun profesionalekin bat etorritz.

## **2.– Bete beharreko baldintza orokorrak.**

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarra izatea edo Europako Erkidegoak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio eremuaren barruko estatu bateko herritarra izatea, langileen zirkulazio askea aurreikusten duena.

Parte hartu ahal izanzen dute, halaber, honako hauen ezkontideak: Espainiako nazionalitatea duen pertsonaren ezkontideak, Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea duenak eta aipatutako nazioarteko tratatuen aplikazio eremuan dauden estatuetako nazionalitatea duenak, betiere, zuzenbidez bananduta ez badaude; bai eta ezkontidearen ondorengoak ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude eta hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanik, gurasoen kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

d) Arkitekto tekniko-aparejadorearen titulua, eraikuntzaren ingeniariatzako gradu titulua edo arkitektura teknikoaren arloko eskumenak gauzatzeko titulu baliokidea izatea (edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria). Kasu horretan, baliokidetasun hori egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, erakunde eskudunak emana. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

e) Funtzio publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez egotea, eta administrazio publiko batetik bereizita ez egotea.



BERA

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztatpena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

15tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

f) Eskatzen den euskararen ezagutza egiaztatzen duen ziurtagiria edukitzea: C1 ahozko eta idatzizko gaitasunetan, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan, erakunde ofizial batek emana, edo ofizialki baliokidetzat onartutako beste titulu bat.

g) B motako ibilgailuak gidatzeko baimena edukitzea.

2.2. Aurreko baldintzak betetzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari buruzkoa izateaz gain, deialdiaren unean eta kontratazio aldian ere mantendu beharko da.

### 3.– Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, erregistro elektronikoen bidez, egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.bera.eus>). Epea hogeitau egun naturalekoa izanen da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean argitaratutako ereduaren arabekoak izanen dira, eta, haietan, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

3.2. Desgaitasuna duten izangaiek probak egiteko behar diren denboren eta baliabideen egokitzapenak eskatzen badituzte, hala adierazi beharko dute eskabidean, eta, horretarako gaitutako tokian, eskatutako egokitzapena edo eskatzen dituzten denbora eta/edo baliabide doikuntzak zehaztu beharko dituzte. Horretarako, izangaiek egokitzen jotzen duen dokumentazioa aurkeztu ahal izanen du eskabidea aurkezteko unean.

3.3. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Nortasun agiri nazionalaren (NAN) edo atzerritarren identifikazio zenbakiaren (AIZ) fotokopia.

b) Deialdi honetako bigarren oinarrian eskatzen diren titulazioen fotokopia.

c) Eskatzen den euskara maila egiaztatzeko dokumentazioa (C1).

d) B motako ibilgailuen indarreko gidabaimenaren fotokopia.

e) Desgaitasun aitortua duten izangaiek hori egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko dute parte hartzeko eskabidearekin batera, organo eskudunak emana. Era berean, beharrezkotzat jotzen dituzten denbora eta baliabide egokitzapenak eskatu ahal izanen dituzte; kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute, eta, gainera, aparteko orri batean adierazi beharko dute zer desgaitasun duten eta zer egokitzapen eskatu dituzten.

Puntu honetan adierazitako dokumentuak aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuko. Nahikoa izanen da dokumentazioaren kopia soilak aurkeztea; hala ere, aurkeztutako datuak edo dokumentuak zehatzak ez badira edo faltsuak badira, erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatu ahal izanen dira.

3.4. Eskabideak aurkezteko epea luzeazina izanen da.



BERA

OINARRIAK - SEFYCU 265614

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

15tik 3 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20

3.5. Eskabidean atzemandako errakuntza materialak edo egitatezkoak edozein unetan zuzendu ahal izanen dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

#### **4.– Izangaiak onartzea eta erreklamazioak.**

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Berako Udaleko alkateak ebazpena emanen du onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzeko, eta Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeko aginduko du (<https://sedeelectronica.bera.eu/tablondeanuncios/>). Bazterturik ez badago, alkateak zuzenean onartu ahal izanen du onartutakoen behin betiko zerrenda, eta adierazitako moduan argitaratuko da.

4.2. Behin-behineko zerrenda Berako Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo hamar egun baliodunen barruan, baztertutako pertsonak erreklamazioak egin ahal izanen dituzte, eta, hala badagokio, egindako akatsak zuzendu, modu telematikoan aurkeztutako idazki baten bidez, udalaren erregistro elektronikoen bidez (egoitza elektronikoen dago eskuragarri).

4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, halakorik balego, Berako Udaleko alkateak ebazpena emanen du onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko, eta udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeko aginduko du. Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean bertan zehaztuko dira probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

4.4. Onartutakoen zerrendan agertzeak ez du esan nahi zerrendan daudenei deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Hautaketa prozesua gaindituz gero aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela baldintzaren bat betetzen, interesdunek galdu eginen dituzte prozedura honetan parte hartzearen ondoriozko eskubide guztiak, hargatik eragotzi gabe faltsutzeagatik izan ditzaketen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

#### **5.– Kalifikazio-epaimahaia.**

5.1. Epaimahai kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Aitor Elexpuru Egaña, Berako Udaleko alkatea.

Ordezkoa: Inés R. Matxiarena Aldalur, Berako Udaleko alkateordea.

1. epaimahaikidea: Maite Mangado Oyanarte, Baztango Udaleko arkitekto teknikoa.

Ordezkoa: María EliceGUI Villegas, Lesakako Udaleko arkitekto teknikoa.

2. epaimahaikidea: Gonzaga J. Aristondo Cartagena, udal arkitektoa.

Ordezkoa: Xabier Urtiaga Elguezua, NASUVINSako arkitektoa.

3. epaimahaikidea: Raúl Iglesias Álvarez, Kulturako koordinatzailea, Berako Udaleko langileen ordezkari gisa.

Ordezkoa: Mattin Leiza Larralde, udaleko agentea, Berako Udaleko langileen ordezkari gisa.

Epaimahaikide idazkaria: Miguel J. Belarra Tellechea, Berako Udaleko idazkaria.

Ordezkoa: M. José Larrayoz Ariztegui, Lesakako Udaleko idazkaria.

5.2. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio arrazoiak daudenean, epaimahai kalifikatzaileko kideek ez dute esku hartuko eta deialdia egin duen organoari jakinaraziko diote.

Era berean, epaimahaikideak errekusatu ahal izanen dira inguruabar horiek gertatzen direnean, 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako moduan.



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eu/>

15tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20

Baldin eta, legez ezarritako abstentzio eta errekusazio arrazoiak aplikatuz, epaimahaiaren osaeran aldaketaren bat gertatzen bada, argitara emanen da, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendarekin batera.

5.3. Hautaprobak egin aurretik eratu beharko da epaimahaia. Epaimahaia behar bezala eratu eta jarduteko, gutxienez, epaimahaikideen gehiengo osoa bertaratu beharko da.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzean eta aplikatzean sor daitezkeen arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistak izan ditzake proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baino ez dute jardungo, eta epaimahaiarekin lankidetzan arituko dira espezialitate teknikoetan oinarrituta soilik.

## **6.– Hautaketa prozesuaren garapena.**

6.1. Hautaketa oposizio bidez egingen da, eta bi proba izanen ditu. Proba horiek egun desberdinetan egingen dira, eta behar bezala iragarriko dira.

6.2. Lehenengo proba test moduko galdera sorta bati idatziz erantzutea izanen da. Galdera bakoitzak lau erantzun izanen ditu aukeran, eta horietako bat bakarrik izanen da baliozkoa. Galderak deialdi honen II. eranskineko gai-zerrendan jasotako gaiei buruzkoak izanen dira. Azterketa egiten den bitartean, ezin izanen da testurik kontsultatu, ez eta hiztegirik edo antzeko materialik erabili ere, salbu eta boligrafoa, tinta urdina edo beltza, punta lodia duena. Gehienezko iraupena epaimahai kalifikatzaileak erabakiko du, hasi aurretik.

Ariketa honen balorazioak 60 puntu izanen ditu gehienez, eta gutxienez 30 puntu lortzen ez dituztenak baztertu egingen dira.

6.3. Bigarren proba praktikoa izanen da, eta, bertan, lanpostuaren edukiarekin eta eginkizunekin lotutako proba bat edo batzuk egin beharko dira, bai eta deialdi honen II. eranskineko gai-zerrendan jasotako gaiekin zerikusia dutenak ere.

Gehienezko iraupena epaimahai kalifikatzaileak erabakiko du, hasi aurretik.

Ariketa honen balorazioak 40 puntu izanen ditu gehienez, eta gutxienez 20 puntu lortzen ez dituztenak baztertu egingen dira.

6.4. Proben zatiren bat euskaraz egin ahal izanen da.

6.5. Oharren kopia eta bestelako iruzurrak berehala baztertzeko arrazoiak izanen dira.

6.6. Plika itxien sistema erabiliko da. Ariketa bakoitzaren zuzenketa amaitu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak lortutako kalifikazioen zerrenda argitaratuko du egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://sedeelectronica.bera.eus>), eta plikak jendaurrean irekitzeko eguna eta ordua ere adieraziko ditu.





SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20

Behin-behineko kalifikazio horien aurka, alegazioak aurkeztu ahal izanen dituzte izangaiek, 5 egun naturaleko epean.

6.7. Deialdi bakarra eginen da ariketa bakoitzerako. Hautagaiak Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste edozein identifikazio agiri eraman beharko dute, eta lehiaketatik kanpo geratuko dira aipatutako agirietako baten bidez beren nortasuna egiaztatzen ez duten hautagaiak.

### **7.– Gainditu dutenen zerrenda.**

7.1. Izangaien kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko du gainditu dutenen zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta.

Epaimahai kalifikatzaileak erreklamazioak ebatzi ondoren, hala badagokio, gainditu dutenen behin betiko puntuazioak argitaratuko ditu udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, eta organo eskudunari bidaliko dizkio, onar ditzan, hautaketa prozesuaren espediente osoarekin batera.

Berdinketarik gertatuz gero, oposizioko lehen ariketan puntuaziorik handiena lortu dutenen alde ebatziko da. Berdinketak jarraitzen badu, bigarren ariketan lortutako puntuazioa hartuko da kontuan, eta, azkenik, berdinketak jarraitzen badu, zozketa publikoa eginen da.

Izangaien zerrendak deialdiko hurrenkeraren arabera onartu aurretik, desgaitasuna egiaztatu duten pertsonen osasun azterketa eginen zaie, lanposturako gaitasuna zehazteko.

7.2. Hautaketa prozesuaren espediente osoa jaso ondoren, organo eskudunaren ebazpen bidez onartuko da izangaien zerrenda, deialdi hurrenkeraren arabera (izena, abizenak eta puntuazioa jasoko ditu), eta udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da.

7.3. Hautaketa horretatik sortzen den gainditutako zerrenda lanpostu hutsak betetzeko erabiliko da, baita lanpostua ordezteko ere, laneko bajen, oporren edo zerbitzuaren beste edozein beharren kasuetan, eta indarrean egonen da beste deialdi bat onartu arte.

Zerrenda indarrean dagoen bitartean lanpostu bererako beste bat eratzen bada Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako hautaketa proben deialdi publikoaren bidez, zerrenda berrienetako izangaiek lehentasuna izanen dute zaharrenean aurretik.

Poltsatik deitzeko, 8. oinarrian ezarritakoa hartuko da kontuan.

### **8.– Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenden kudeaketa.**

8.1. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendan dauden pertsonen lehentasun ordena lortutako azken puntuazioaren arabera izanen da.

Adierazi behar da arkitekto teknikoaren lanpostua aldi baterako betetzeko izangaiei deitzeko, kontuan hartuko dela Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa. Xedapen horren arabera, aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan, hiru lanpostutik lehena gordeko da %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonen bete dezaten, betiere dagozkien hautaketa probak gainditu badituzte eta dagozkien zereginak eta funtzioak betetzeko bateragarritasuna egiaztatzen badute.

8.2. Deia.



BERA

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

15tik 6 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

8.2.1. Onartutako izangaien kontratazioa, oro har, zerbitzuaren beharren arabera banakako deia egin ondoren egingen da.

8.2.2. Udalak hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabide orrietatik hartuko ditu datuak. Erraz aurkitzeko, izangaiek harremanetarako hainbat telefono eta helbide elektronikoko jakinarazi ahal izanen dituzte, eta etengabe eguneratuta eduki beharko dituzte.

8.2.3. Deia dagokion zerrendako lehentasun hurrenkeraren arabera egingen da. Dei bakoitza idatziz jasoko da, eta zer inguruabarretan, egunetan eta ordutan egin den adieraziko da.

Hiru saiakera egin ondoren izangai bat ezin bada aurkitu, zerrendako hurrengoarekin jarriko da harremanetan, eskainitako lanpostua bete arte. Harremanetan jarri ezin izan diren interesdunek dagokien zerrendan jarraituko dute.

Izangaia kasu bakoitzean ezarritako epean jakinarazi beharko du kontratua onartzen duela. Epe hori ez da inoiz izanen deia eta/edo posta jasotzen duenetik 24 ordu baino luzeagoa, eta kasu bakoitzean udalak erabakiko du. Erantzuten ez badu, kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

8.2.4. Aurreikusitako hasierako iraupena hilabete edo gutxiagokoa duten kontratazioak, baimendu ondoren, prest dagoen lehenengo izangaiari eskaini ahal izanen zaizkio, baldin eta, aurreko puntuan aurreikusitakoa bete beharrik gabe, harekin harremanetan jartzea lortzen bada eta berehala laneratzea onartzen badu.

8.2.5. Kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste lanposturik betetzeko kontrataziorik eskainiko, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratazioetan izan ezik. Horietan, Udalean bete beharreko beste behar batzuekin osatuko da lanaldia, betiere kontratu beraren barruan posible bada eta interesdunaren adostasuna badu.

8.2.6. Deiei buruz oro har xedatutakoa alde batera utzi gabe, izangai batek aldi baterako kontratu baten bidez lanpostu bat bete badu eta kontratu hori amaitu eta hurrengo 6 hilabeteen barruan Udalean lanpostu berdin bat aldi baterako betetzeko baimena ematen bada, izangai horri kontratua eskainiko zaio, betiere dei berriaren unean honako baldintza hauek betetzen badira:

– Izangaia deiaren unean indarrean dagoen zerrenda batean egotea eta kontratuaren 3 urteko gehieneko iraupen metatua ez gainditzea.

– Kontratua ez bada amaitu kontratuari uko egiteagatik.

8.2.7. Behar bezala egiaztatutako premia dagoen kasuetan, kontratazioa, baimendu ondoren, 8.2.3 puntuko bigarren paragrafoan ezarritakoa bete beharrik izan gabe eskainiko zaio prest dagoen eta harremanetan jartzea lortzen duen eta berehala laneratzea onartzen duen lehenengo izangaiari.

8.2.8. Amatasunagatiko edo adopzioagatiko lizentzia kasuetan deitzea. Aldi baterako kontrataziorako izangaiei, baldin eta amatasunagatiko edo adopzioagatiko lizentziarako ezarritako aldiaren barruan badaude (aitatasun lizentzia alde batera utzita), kontratu bat sinatzeko deitzen bazaie eta onartzen badute, kontratu hori gordeko zaie lanpostura benetan itzuli arte, eta une horretan sinatuko da kontratua.



BERA

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

15tik 7 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20

Kontratua onartu ahal izanen da, baldin eta aurreikusitako iraupenak lanpostuan benetan lanean hasteko aukera ematen badu.

Amatasunagatiko edo adopzioagatiko lizentziarako ezarritako aldia amaitzen den egunean hasiko da lanean, edo lehenago, interesdunak hala eskatzen badu, betiere amarentzat ezarritako erditzearen ondorengo nahitaezko atsedenaldia errespetatuz.

Kasu horietan, dagokion administrazioan emandako zerbitzutzat hartuko da hasiera batean lanean hasteko aurreikusitako datatik (amatasun edo adopzio egoerarik egon ez balitz bezala) lanpostura benetan itzultzen den arte igarotako denbora. Aitorpen hori egiteko, kontratua sinatu beharko da, eta lanpostua betetzen duen unetik aurrera izanen ditu ondorioak.

### 8.3. Uko egiteak.

8.3.1. Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratazio eskaintza bat egin ondoren, erantzuten ez badu, ez duela onartu ulertuko da. Beraz, uko egitearen baliokidea izanen da.

8.3.2. Izangairen batek eskainitako lanpostuari uko egiten badio, zerrendako azken lekura igaroko da, honako kasu hauetakoren batean dagoela egiaztatzen duenean izan ezik:

a) Indarrean dagoen izendapen edo administrazio-kontratu baten edo lan-kontratu baten ondorioz behartuta egotea.

b) Gaixotasunagatiko baja egoeran egotea.

c) Kargu politiko edo ordezkaritza kargu baterako izendatzen edo hautatzen duten bitartean, kargu horretatik beren eginkizunak betetzeko bateraezintasuna ondorioztatzen bada, Administrazio Publikoaren barruan izendapen askeko plaza betetzeko izendatzen badute, edo Gorte Nagusiek edo autonomia-erkidegoetako parlamentuek aukeratzen badute konstituzio organoetako kide izateko eta ganberak aukeratu beharreko beste kargu batzuetarako.

d) Ezkontzagatik edo bikote egonkor gisa elkartzeagatik, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen oporren, lizentzien eta baimenen erregelamendua onartzen duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuan aurreikusitako lizentzia baliatzen den bitartean.

e) Odol ahaidetasunezko edo ezkontza ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideen heriotzagatik edo gaixotasun larriagatik, otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuan aurreikusitako aldian.

f) Amatasunagatik, aitasunagatik, adopzioagatik edo harreragatik, otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuan aurreikusitako aldian.

g) Hiru urtetik beherako haur bat zaintzea edo seme-alabak zaintzeko eszedentzian egotea.

h) Legezko zaintza dela-eta, bere zaintzapean %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila duen eta inolako jarduera ordaindurik egiten ez duen desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorial bat duen pertsona bat badu, eta dagokion egiaztatzea aurkezten badu.



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

15tik 8 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20

i) Odol ahaidetasunezko edo ezkontza ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaide bat ardurapean izatea, adinagatik (65 urtetik gorakoak), istripuagatik edo gaixotasunagatik bere kabuz moldatu ezin dena eta ordaindutako jarduerarik egiten ez duena, eta dagokion egiaztagiria aurkeztuta.

j) Hautagaiak hala erabakitzea, urtebeteko epean genero-indarkeriaren biktima izatearen ondorioz.

k) Erakunde ofizial batek emandako beka batez baliatzen denean.

8.3.3. Aurreko apartatuan zerrendatutako egoeraren batean edo antzeko egoeretan dauden izangaiek, zeinak kontratazio arloan eskumena duen organoak baloratu beharko baititu, dokumentu bidez eta modu frogagarrian egiaztatu beharko dute, hamar egun balioduneko epean, uko egiten dioten lanpostua eskaini zaien egunetik aurrera; kasu horretan, zerrendan duten leku berean egonen dira.

8.3.4. Arestian aipatutako kasu guztietan, hautagaiak zerbitzuak emateko prest daudela jakinarazi beharko dute, uko egitea justifikatu zuen egoeraren amaiera data adierazten duen dokumentazioaren bidez. Jakinarazpen hori egiten ez den bitartean, ez zaie lanposturik eskainiko.

Horretarako emandako epean alegatutako arrazoiak egiaztatzen ez bada, eskainitako kontratuari uko egin zaiola ulertuko da, arrazoi justifikaturik gabe, deiaren egunetik aurrera.

Era berean, hautagaiak edozein unetan jakinarazi ahal izanen dio Berako Udalari lanerako prest ez egoteko edozein kausatan dagoela, eta arrazoi hori egiaztatu beharko du deiaren unean.

8.4. Zerrendatik kanpo geratzea.

8.4.1. Deialdia eragin duen zerrendatik kanpo utziko dira honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

a) Eskainitako lanpostuari justifikaziorik gabe uko egitea.

b) Izangaiari egotz dakioken arrazoiaren batengatik dagokion kontratua ez sinatzea, deialdiaren ondorioz lanpostua onartu ondoren.

c) Probaldia ez gainditzea.

d) Sinatutako kontratuari uko egitea, salbu eta uko egitea Berako Udalean eta haren erakunde autonomoetan funtzionario edo lan-kontratudun finko gisa sartu delako maila bereko edo beheragoko beste lanpostu batean, edo 8.2.3 apartatuaren azken paragrafoan ezarritakoaren ondorioz.

e) Urtebetean kontrataziorako deituz gero, izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa bada behin eta berriz, hark emandako telefono edo helbide elektronikoetan.

f) Lanpostu berean edo maila handiagoko beste batean Berako Udalean eta haren erakunde autonomoetan funtzionario edo lan-kontratu finko gisa sartzea.

g) Lanpostua uztea.





SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20

h) Kontratua gerora sortutako arrazoiengatik amaitzea, lanpostua betetzeko gaitasunik edo egokitzapenik ezagatik, lanpostuari esleitutako eginkizunak eraginkortasunez egitea eragozten duen errendimendu nahikorik ez dagoelako.

8.4.2. Bazterketak egiteko prozedura honako hau izanen da:

- Baztertzeko arrazoiaren bat dagoela ikusiz gero, kasu bakoitzean eskumena duen organoak nahitaetzko txostena eginen du, eta 10 egun balioduneko entzunaldi izapidea egin ondoren, hala badagokio, baztertzeko proposamena igorriko dio Berako alkatezari.

- Alkateak hautagaiak baztertzeko ebazpena emanen du, aurreko apartatuetan aurreikusitako arrazoiaren arabera. Baztertzeko ebazpena gehienez ere 10 eguneko epean jakinaraziko zaio interesdunari, eta berariaz adieraziko zaio zergatik.

- Baztertze prozedura izapidetzen den bitartean, pertsona kontratatzeke prest ez dagoela ulertuko da.

### **9.– Datu pertsonalak babestea.**

Datuen tratamenduaren arduraduna: Berako Udala.

Datuak babesteko ordezkaria: [dpd@bera.eus](mailto:dpd@bera.eus).

Helburua: langileak hautatzea eta deialdiko lanpostua betetzea.

Oinarri juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, onesten duena Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina.

Datuak gordeko diren denbora: datuak edukiko dira aipatutako helburua betetzeko behar den denboran, eta gordeko dira Udalak haien tratamenduaren ondoriozko erantzukizuna izan dezakeen bitartean. Era berean, bete beharko dira apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio arauak (Artxiboei eta Dokumentuei buruzko Foru Legea).

Datuen hartzaileak: datuak epailei nahiz auzitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeria betez, eta argitara emanen dira Udalaren web-orrian eta iragarki-tauletan, deialdian adierazi bezala.

Eskubideak: interesdunek eskubidea dute beren datuetan sartzeko, akatsik baldin badago haiek zuzentzeko, bai eta, lehenbiziko apartatuan adierazitako helbidera joz, haiek ezerezteko ere.

Halaber, interesdunek erreklamazioa aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, eskaera-idazki bat bidaliz haren helbidera (Jorge Juan kalea 6, 28001, Madril), edo egoitza-elektroniko honetara: [www.agpd.es](http://www.agpd.es).

### **10.– Errekurtsoak.**

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka, honako errekurtso hauetako bat aurkezten ahalko da, hautara:

a) Berraztertzeko errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.



BERA

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

15tik 10 orrialdea

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zeina zuzendu behar baitzaio Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa paratzen ahalko da, alkateari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.



BERA

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

15tik 11 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkarria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20

**I. ERANSKINA**  
*Eskabidea*

**Honako honetan parte hartzeko eskabidea: deialdia, Berako Udaleko arkitekto teknikoaren lanpostuan aldi baterako lan-kontratuarekin ariko diren izangaien zerrenda bat eratzeko hautaprobez bidez.**

**I.– Hautapen-prozesua:**

Deialdia egiten duen erakundea: Berako Udala.

Lanpostuaren izena: arkitekto teknikoa.

**II.– Datu pertsonalak:**

Deiturak eta izena: .....

NANa: .....

Helbidea:.....

1. telefonoa: ..... 2. telefonoa: .....

Posta elektronikoko helbidea: .....

–Bitarteko elektronikoak: jakinarazpen telematikoa: BAI/EZ.

–Adierazitako helbidean jakinaraztea: BAI/EZ.

Bitarteko elektronikoak aukeratzen badituzu, bide hori erabiliko da eskabide honekin lotutako edozein komunikazio edo jakinarazpen egiteko, eta jakinarazpenak behar bezala egintzat joko dira eta behar diren ondorioak izanen dituzte, harik eta berariaz jakinarazten duzun arte jakinarazpenak posta-helbidearen bidez egitea nahi duzula.

**III.– Aditzera ematen dut:**

DESGAITASUN BALDINTZAK:

Aitortuta daukadala %..... ko desgaitasun gradua, eta desgaitasun ziurtagiria aurkezten dudala.

EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTATZEA:

Titulazioa erantsi da.

Horiek horrela, ADITZERA EMATEN DUT:

1. Betetzen ditut hautapen prozesuan parte hartzeko baldintza guztiak, deialdiaren oinarrietan eskatu bezala.



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**



SINATZAILEA

Berako idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

2. Ez nago kondenatua doloeko delitu bat dela kausa, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik kendua ere, eta ez nago desgaitua eginkizun publikoetan aritzeko.

3. Ez dut indarreko xedapenetan ezarritako desgaitasun edo bateraezintasunerako berariazko kausarik.

Horrenbestez,

ESKATZEN DUT onar nazatela eskabide honetan aipatzen den deialdian.

Eguna eta sinadura

Deklaratzen duenak baimena ematen dio toki-erakundeari, jarraikiz abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoa), tratatu daitezten espedientean eta izapideetan jasota dauden bere datuak, fitxategi automatizatu batean sartzeko, fitxategi horren helburua baita datu pertsonal horiek sartzen dituzten organoei erraztea dagozkien kudeaketa-, egiaztapen- eta jarraipen-prozedurak kontrolatzea eta hobetzea. Halaber, deklaritzen duenak badaki, aipatutako lege organikoaren arabera, toki-erakundearengana jo dezakeela, baldin bere eskubidea erabili nahi badu datu horiek ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko, idatziz, eskatzailearen nortasunaren fede ematen duen frogarekin, eta erreferentzia gisa "Datuen babesa" paratuz.



BERA

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20

## ANEXO II *Temario*

1. gaia.–39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Prozeduran interesdun direnak: jarduteko gaitasuna eta administrazio prozeduran interesdun direnen kontzeptua, ordezkariak, identifikazioa eta sinadura. Administrazio publikoen jardura: arau orokorrak, erregistroak, administrazio-isiltasuna, epe-mugak eta epeak (zenbaketa). Administrazio-egintzak: betekizunak, eraginkortasuna, jakinarazpena. Administrazio-prozedura erkidea: bermeak, faseak.
2. gaia.–1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena: V. titulua. Esku-hartze administratiboa eraikuntzan eta lurzoruaren erabileretan eta hirigintzako diziplinan.
3. gaia.–Berako Udal Plana. Hirigintza arauak. Berako Udal Planeko ordenantzak. Lurzoru urbanizazineko arauak. “Ibardin eremurako” arauak. Eraikin interesgarrien inbentarioa eta katalogoa.
4. gaia.–44/2011 Foru Dekretua, maiatzaren 16koa, Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Plana onesten duena. Araudi dokumentuaren I., III. eta IV. tituluak. PN5 Eranskina, Uholde arriskua duten Eremuen Zonifikazioari eta Bertan Erabilera Onargarriei buruzko Irizpideak eta PN8, Lurzoru Urbanizazinean erabilera eta jardura jakin batzuk baimentzeko Irizpideak.
5. gaia.–17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena: I. titulua, V. kapitulua. Jardura sailkatuaren lizentzia behar duten instalazioak eta jarduerak. 26/2022 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen 17/2020 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duena: IV. titulua. Jardura sailkatuaren lizentzia. I. eta II. eranskinak.
6. gaia.–Ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua, zarata edo dardarak eragiten dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituena. III. kapitulua.
7. gaia.–5/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Nafarroako errepideei buruzkoa: VII. tituluko I., IV. eta V. tituluak eta I. kapitulua.
9. gaia.–38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa.
10. gaia.–Eraikuntzaren Kode Teknikoa: I. zatia, DB-SI eta DB-SUA.
11. gaia.–142/2004 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizitzeko gutxieneko baldintzak arautzen dituena.
12. gaia.–Segurtasuna eta istripuen prebentzioa:
  - 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. Xedea eta eremua. Langileen eta enpresen eskubideak eta betebeharrak. Prebentzio zerbitzuak. Lege honetatik sortutako erregelamenduak.
  - 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza lanetan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena: Istripuen prebentzioa. Norbera babesteko baliabideak. Segurtasuna eta osasuna eraikuntza lanetan: Segurtasun eta Osasun Azterketa; Segurtasun eta Osasun Plana.



BERA

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

15tik 14 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/01/20



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

13. gaia.–2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoari buruzkoa. Kontratu motak. Prestatzeko jarduketak. Adjudikazio prozedurak. Administrazio Klausulen Pleguak. Fidantzak eta bermea.

14. gaia.–QGIS Geografia Informazioko Sistema. Oinarriko kontzeptuak: mapak, atributuak, osagarriak, datuen deskarga, datu bektorialak eta raster datuak, topologia.

**EGINBIDEA:**

*Jasota uzteko agiri hau 2026ko urtarrilaren 13ko 5. zenbakia duen Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartu zela, eta oinarrien 2.1.d) atala 2026ko urtarrilaren 20ko 11. zenbakia duen Alkatetzaren Ebazpenaren bidez zuzendu dela.*

*Bera, dokumentu honen sinadura digitalaren egunean.  
Idazkaria.*



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADFP FNYL YY7H TV7H

**OINARRIAK - SEFYCU 265614**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/> 15tik 15 orrialdea